

## Kutxabank

### herriarena eta herriarentzat

Euskal Herria bere finantza sistema propioaren kontrol publiko eta soziala galtzear dago: gure erakunde publikoek orain 100 urte baino gehiago sortu zituzten eta kudeatu dituzten aurrezki kutxak pribatizatu nahi dituzte.

Orain arte ikusi duguna larria baino larriagoa da:

- BBK-k zeukan handitzeko obsesioak Cajasur erostera bultzatu eta ehunka milioitako galerak sortarazi zizkion. Kutxak, bestetik, inbertsio espekulatuak egin zituen eta horiek ere ehunka milioitako galerak ere ekarri zituzten. Kopuru horiekin, gizarte ekintza duin bat egin ahal zen hamarkada luze batean!

- Kutxabankek euskal hornitzaile garrantzitsu batzuk kanpokoz ordezkatu ditu eta euskal enpresa estrategikoen akzio asko putre fondoei saldu dizkie, Europatik agindua datorrela aitzaki gisa erabili.

- Kutxabanken 100 milioi euro bideratu ditu Mediterraneo aldeko Sareb-eko (banco txarra) etxeen erosketa finantzatzeko. Fede oneko zordunekin malgutasun gutxien erakusten duen eta etxegabetze gehien egiten duen entitate da (babes ofizialekoak barne) eta ordainean emateari edo alokairu sozialari etengabe ezetz esaten die. Gainera, HMEI (IRPH) indizea aplikatzen du, nahiz eta epai batek indargabetu eta Legebiltzarrak ez egiteko esan. Instituzioek eskatzen diotenari muzin egiten badio, pribatizatzen dutenean zer ez duen egingo!

Ondorioz, Gizarte Ekintzara bideratzen den dirua erdira jaitsi dute eta etorkizunean kolokan dago. Daramaten bidea Nafarroako Kutxaren berdin-berdina da. Hemen ere kutxak galduko ditugu?

Baina larriena ikusteke dugu oraindik. Egindako kudeaketa txarratik dimititu beharrean, orain estatu kolpea ematen ari dira eta, Espainiako banku erreskatearen aitzakiarekin, boterea betirako haien esku izan eta kontrol publiko eta soziala saihestu nahi dute, banku fundazioak bihurtuta. Euskal hauteskundeetan egon daitezkeen aldaketen aurrean blindatu eta Kutxabankek daukan boterea, eragiteko gaitasuna eta ondarea haien onura pribaturako erabili nahi dute eta ez euskal herritar guztien onurarako.

Ezin dugu Kutxabank pribatizatzen utzi. Alternatibak egon badaude eta herritar guztien onurari begira egongo den finantza sistema propioa edukitzeko eskubide osoa dugu. Horregatik, orain arte hainbat sindikatu eta elkarteek egindako lana osatzeko, herriz herri eta auzoz auzo eratu nahi dugun *Kutxabank Publikoa* bilgunean parte hartzera dei egiten dizuegu:

#### Bizkaiko bilera: Bilbo

Urriak 1, asteazkena *miércoles*  
18:30 Zazpikaleak *Sietecalles*  
EHU egoitza UPV

#### Gipuzkoako bilera: Donostia

Urriak 8, asteazkena *miércoles*  
19:00 Egiako Kultur Etxea

#### Arabako bilera: Gasteiz

Urriak 9, osteguna *jueves*  
19:00 Alde Zaharra *Casco Viejo*  
Aldabe Gizarte Etxea

Euskal herritarren aurrezkiak, gizarte ekintza eta kutxen demokrazia arriskuan. Laguntzeko prest?

***Kutxabank Publikoa Bilgunea***



## Kutxabank público y social

Euskal Herria está a las puertas de perder el control público y social de su propio sistema financiero: quieren privatizar las cajas de ahorro fundadas y gestionadas por nuestras instituciones públicas desde hace más de 100

años. Lo que estamos viendo hasta ahora es realmente muy grave:

- La obsesión expansionista de BBK hizo que al comprar Cajasur asumiera cientos de millones de pérdidas. Por otra parte Kutxa hizo inversiones especulativas que le acarrearón también pérdidas por otros cientos de millones. ¡Con este dinero se hubiera podido mantener la Obra Social durante más de una década!

- Kutxabank ha sustituido varios importantes proveedores vascos por otros de fuera, y ha vendido acciones de compañías estratégicas vascas a fondos buitres bajo la disculpa de un mandato europeo.

- Kutxabank ha dirigido 100 millones para financiar viviendas de Sareb (banco malo) en el Mediterráneo. Es la entidad más inflexible con los deudores de buena fe, la que más desahucios hace (también en VPO) y niega sistemáticamente la dación en pago y el alquiler social. Además sigue aplicando el índice abusivo IRPH, a pesar de la sentencia en su contra y de los llamamientos que recibió desde el Parlamento de Vitoria... Si ya desoye descaradamente lo que le piden las instituciones, ¡qué será lo que nos espera!

Por todo ello ha disminuido a la mitad el dinero de la Obra Social y está en peligro en el futuro. Llevan el mismo camino que Caja Navarra. ¿Aquí también nos vamos a quedar sin cajas?

Pero lo más grave está por ver. En lugar de dimitir por la nefasta gestión realizada, ahora están dando un golpe de estado, y con el pretexto del rescate bancario español quieren perpetuarse en el poder, quitarse el control público y social bajo la conversión de fundaciones bancarias. Quieren blindarse ante futuros cambios en el mapa electoral vasco y utilizar el poder, influencia y patrimonio que tiene Kutxabank en beneficio privado propio, en vez del de toda la ciudadanía vasca.

No podemos permitir que privaticen Kutxabank. Existen alternativas, y tenemos derecho a continuar con un sistema financiero propio que mire por el bien común. Por ello, para completar el trabajo de algunos sindicatos y asociaciones, os convocamos para participar en la plataforma *Kutxabank Publikoa* que queremos formar en cada pueblo y barrio:

Los ahorros de la ciudadanía vasca, la obra social y la democracia de las cajas están en peligro. ¿Estás dispuesto/a a ayudar?

kutxabankpublikoa@gmail.com